

ten ez zelako —geron iritzietan, esan nahi dut—, hor gelditu zen erabaki gabe. Baina nahi-ez-nahi, premiak eskaturik, hori eta beste gauza asko ere bir ikusi eta erabaki beharrean egongo garela uste dut. Axular-ek esanak balio du hemen ere: “Zeren untziak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama. Hala garamatza, bada, gu ere egungo uholdeak. Ezta pausatzerik, ezta gelditzerik, eta ez trikatzerik” (Ikus. Ax 40). Hain zuzen, hori gertatzen zaio gaur Euskaltzaindiari. Zorionez ala zoritxarrez ez dakit. Baina ezin diogu geure eginbideari uko egin.

Gainerakoan, eta beti bezala, euskaltzain oso nahiz laguntzaileoi batzarreetarako txostenak prestatzeko erregua egin nahi dizuet.

PROPOSAMENA: EUSKALTZAINDIAREN EPE LUZERAKO ETA EPE LABURRERAKO PLANAZ

M. Lasa

Azken urteotan gero eta gehiago eta nabarmenago ari gara ikusten euskararen normaleztapenarantz abiatzeko gurari biziaren agerpenak. Horien artean aipa ditzagun, exenplu gisa, besteak beste:

- Euskararen ofizialtasuna eskatzeko berroki egin diren kanpainak.
- Ikastolak izan duen arrakasta Euskal Herri guztian zehar eta beronen dinamika irakaskuntzaren maila berriak urratsez urrats menperatzeko: aureskolatik hasi, E.G.B., B.U.P. eta Profesional Ikastegietaraino, oraingoz bederen.
- Euskara kultur hizkuntza bilaka dadin, han hemenka lanean diharduten taldeen ahalegin sistematikoak.
- e.a.

Normaleztapen joeraren sinalagarri dira ere erakunde beronen baitan, azken urteotan bereziki, sortu diren arazo eta lan berriak, hala nola, euskararen batasunari buruzkoak eta hiztegegintzakoak. Guztionek, Euskaltzaindiak normaleztapenaren alderdia hartu duela adierazten digu.

Normaleztapen hitzarekin zera adierazi nahi dugu, halegia, hizkuntzaren oztopo gabeko erabilketarantz, gizarte zeregin guztietan, abiatzea, Ninyoles-ek erabiltzen duen zentzu berean. Alde honetatik hizkuntza normaleztapen borondatea asimilapenari jazarri geniezaiokeen jarrera kontrakor bakarra da, luzera begira tarteko soluziobiderik ez dagonez gero. Dena den bata ala bestea hautatu ondorio oso desberdinetara eramán gaitzake.

Normaleztapenak problema izugarri konplexuak dakarki eta bide honetatik abiatuz gero hizkuntzarekiko jarrera diletanteak ezin onar ditzazkegu.

Hala eta guztiz ere Euskaltzaindiaren egungo egoera kontraesankorra da hein handi batetan. Badirudi alde batetik normaleztapen politikaz ohartzen eta onartzen hasi dela eta bestetik ez dela ausartzen politika horren ondorio guztien erantzukizuna beregain hartzera. Egia esan, arazoaren kakoa nahi izatean bezainbat ahal izatean datzalarik, ez da batere harrizkoa jarrera zalantzakor hori.

Hain zuzen ere hemen azaltzera goazen proiektu proposamena, egoera kontraesankor hori gainditu asmotan egina da.

EUSKERA aldizkariari begiradaxo bat bota besterik ez daukagu plangintza asmo ezaz konturatu ahal izateko. Gerra ostean bederen, urtetan eta urtetan, iraute huts soil batetan dirau; bakarrik azkenengo hamar uteotan eta bereziki A. Villasante Euskaltzainburuaren zuzendaritzapean ageri dira lehenengo aldiz plan gisako zerbaitzuk: ia urteoraz ageri da EUSKERA aldizkarian beronen txostenen bat eginiko eta egitekoaren (bere hitzak erabiliaz) lanen kontu errendatzeaz. Dena den INERTZIA baten eragina edo nabari zaie: urtez urte eta behin eta berriro errepikatzen dira asmo eta lan berberak. Hau guziau oso ulergarria da eta arestian aipatu dugunez egoera jakin baten ezinbesteko ondorioa besterik ez da.

Guztion azken jomuga Euskaltzaindia sendotzea delarik, gure proposamenak beronen jestiogintzarako tresna egoki baten beharra azaldu nahi du, hau da, plangintzarako teknika batzu eta berau posible egingo duten baldintzapenak ezartzeko eman behar diren urratsen zertzea. Ikus ditzagun bi atalok hurrenez hurren bereizturik.

1. EUSKALTZAINDIAREN PLANGINTZA

Ez gara hemen arituko beronen beharraz, edozein erakundentzat behar hori nabaria denez gero.

Plangintza moeta bi bereizten ditugu:

- . Epe luzerako plana.
- . Epe laburrerakoa edo Jestio Plana.

1.1 EPE LUZERA KO PLANA

E.L.P.ean erakundeak epe jakin baten barnean ongi definiturikako politiken arauera iritsi nahi dituen helburuak eta horik lortzeko behar dituen baliabideak ezartzen dira, helburu eta baliabideok orekatuz, noski.

E.L.P. edozein erakunderentzat jestio tresna inportagarri-erretariko bat, haren etorkizun hurbilaren nondik norakoa zuzentzen duelarik eta ahal den neurrian eskupean hartzen.

Hemen egitekoaren kuantitateari baino garrantzi handiagoa ematen zaio alderdi kualitatiboari, politikak markatzeari, e.a. Esan gabe doha, ingurumen aldakorren egokitu behar zaiola, aldiaren aldi berrikusiz eta berrukituz.

Industrial enpresek ohituraz, E.L.P.ren barruan hiru elementuok hartzen dituzte kontutan:

- Planaren epemuga edo horizontea, gehienetan 5 urtetakoa.
- Oinarrizko politik, helburu eta estrategia orokorren definitzea.
- Epemugaren barnean burutu nahi diren lanen zerrenda, beroien bukaera data markatuz.
- Planaren egokidura testa (erdaraz test de coherencia deritzana) helburu eta baliabideen arteko egokitasuna neurtu ahal izateko. De facto "Presupuesto de Explotación" soil bat izan daiteke.

Euskaltzaindiaz den bezainbatean eta kontutan harturik teknika hauk egiteko ohiturik eza eta epe laburrean egin beharrekoen premia larria, eta oraingoan, E.L.P. soil bat besterik ez luke izan behar, jestio plana edo epe laburrerakoa zehatzki egin ahal izateko baliagarri izan daitekeen neu-

rrian, ez besterik. Hau kontutan harturik, guri dagokigunez, bi atalok behar ditu bere bbaitan:.

1. Oinharrizko politiken definitzea. Hemen ezinbesteko deritzagu zalantzarik gabeko normaleztapen politika bati dagokien xehetasunak argi eta garbi aipatzeari. Honetaz kanpo, jakina, egon daiteke beste zenbait oinharrizko politika eta pentsatu beharko da zeintzuk ezarri.
2. Euskaltzaindiari dagozkion eginkizun edo lanen zerrenda ahalik eta osoena, inungo baldintzapen eta denbora mugarik kontutan hartu gabe. Hemen gehienbat axola zaiguna, irudimena askatzea eta adimena xorroztea da lehenengoz. Gero has gindezke lan bakoitzari berari dagokion lehentasuna ematen, epe laburrerako jestio planean sartu behar direnak auke-ratzeko.

Honi begira eta aitzin-explorazio gisara, aztertu ditugu "*Euskera*" aldizkariko ale guztiak, beraietan inoiz agertu edo aipatu diren lan eta asmoen bilduma egiteko asmoz eta egin ere egin dugu.

1.2 EPE LABURRERAKO PLANA EDO JESTIO PLANA

Euskaltzaindiaren egungo egoera kontutan harturik E.L.P.ri baino garrantzi handiagoa ematen diogu Jestio Planari. Zehaztasun handiz egin behar du izan.

Merezi du jestio plana osatzen duten atal nagusiak puntuz puntu aipatzea.

1. Jestio Planak besarkatzen duen epe barnean egiteko erabaki diren lanen zerrenda zehatza, lan bakoitzari bere arduraduna egokituz, epe bat jarriaz (urtea ez ezik amiera hila ere bai). Lan hauk E.L.P.an eginikako zerrendatik aukeratzen dira lehentasun eta premien arauera.
 2. Lan bakoitzari kostu estimatu bat egotzi behar zaio, ordainketa hilen arauera lerrokatuz pagakizun guztiak.
 3. Euskaltzaindiak itxaro dituen dirusartze guztien zerrenda egin behar da, sarrera hilaren arauera lerrokatuz.
- 2 eta 3 puntuko diru sar-irteerak alderatuz "*Cuenta de*

Explotación'' soil bat egin daiteke planaren finantzal oreka lortu artio.

Jestio planak besarkatu behar duen epeak laburra izan behar du: gehienez jota, urtebetekoa. Bestalde planari zehatz jarraitu behar zaio, hiruhilabetekariz kontrolak eginaz.

1.3 PLANGINTZARAKO BATZORDE BEREZI BAT

Jestio tresna hauk instituzionalizatuz gero PLANGINTZA BATZORDE berezi bat sortzea egoki izango litzateke. Agian E.L.P.ren ardura eta J.P.rena organu desberdinengan behar-ko litzateke banatu, lehenengoa esate batetarako Euskaltzain osoen eskuetan utzirik eta bigarrena organu eragile baten eskuetan, beronen buru euskaltzain oso bat izan daitekelarik, modu honetan bilen arteko lotura egon dadin.

Hala eta guztiz ere ez gara oraingoz xehetazun tekniko gehiegitan sartuko.

Momentuz erakunde puntu hauk baino premia handiago dute gure eritziz, asmo hau aurrera ateratzeko eman behar diren lehen urratsetaz mintzatzea.

1.4 PLANGINTZAREN ABIABURUARI BURUZ

Gauden egoerak zirkulu hertsiki (círculo vicioso) baten irudia dakarkigu burura. Zirkulu edo katai honek hiru maila ditu bata bestearekin hertsiki loturik:

- Helburuk edo egin beharreko lanak.
- Profesional liberatuak.
- Finantza baliabideak.

Eta egia esan orain arte ez dugu jakin ahal izan nondik kataia apurtzen has.

Helburuez mintzatu garelarik, lanen ardura beregain hartuko duten profesionalen ere zerbait esatea komeni da. *Euskaltzaindiaren* ohiko funtzionamenduerak baztertu gabe, ba dirudi beste moeta berri baten beharra eskatzen digula goian aipaturikako ekintza planifikatuak. Ez da posible beti, eta batez ere lana askarki egitea nahi bada, hutsaren truk aritzea, aitzitik beharrezkotzat jotzen dugu lan berezi batzutarako profesional liberatuek baliatzea, *Euskaltzaindia* eta profesionalaren arteko kontratu gisako formula baten bitartez.

Euskaltzaindiak diru baliabide ugariagoak eskuratzen dituen arauera lan moeta hauk egiten ahal dira eta egin ere gero eta gehiago egin beharko, luzamenduten ibili gabe gauzak aurrera atera nahi baditugu.

Dena den dinamika berri bati hasera emateko, esan gabe doha, egungo ostoporik handiena finantzal baliabide eskasiaren aldetik datorrela. Beraz E.L.P. eta J.P. egin aurretik ezinbestekoa dirudi Batzorde Ekonomikoa sendotu ondoren karpaina gogor bati hasera ematea, ikerketa prospektibo bat ahalik eta realistena egin ahal izateko.

Gure ustez B.E. euskaltzain eta laguntzaile ez diren eta gestiolari jitea duketen lagunez osa beharko litzateke. B.E.ak gaurdanik lanean hasi beharko luke, hiruzpalau hilabeteren buruan plangintza egin aurretik etorkizuna garbi xamar ikus dezagun.

Beraz laburki esanaz, proposatzen duguna zera da:

- *Euskaltzaindiak*, hizkuntza normaleztapenaren aldeko politikari dagokion ekintza plan bat egiten has dadila, horretarako E.L.P. eta J.P. deritzaten jectio tresnez baliaturik.
- Guztiau aurrera eramateko egutegi bat proposatzen dugu:
 - Martxoa, Apirila, Ekaina:
 - E.L.P. eta J.P.ren lehen hurbilpena.
 - B.E.ren sendotuz gero, *Euskaltzaindiaren* finantzal iturburuek ugaritzeari buruz eta jectio planak besarkatuko duen epeari buruz itxaro ditzakegun diru-sarreraren aitzinkontu bat egin dezan.
 - *Euskaltzaindiko* lagunekin harremanetan ipini, pertsonen disponibilitatea nolabait, eta beti J.P. definitiboari baldintzapeturik, zenbaite-rainokoa izan daitekeen aurrez ikusi ahal izateko.
- Uztailean:
 - E.L.P.ri azken ukitua eman eta orobat J.P.ri. Tresna hauk modu egoki batetan erabiltzeko behar diren organu teknikoak sortu *Euskaltzaindiaren* baitan.